

## PROIEKTUAREN IDAZKETA

# TRENBIDEAREN GAINEKO ZUBIA HOBETZEA ETA HANDITZEA

**ESTATUKO AURREKONTU OROKORREK, EH BILDUK ESKATUTA, TRANTSIZIO EKOLOGIKOAN, KULTURAN, ZAINZAN, KIROLEAN, AZPIEGITURETAN ETA ESPAZIOEN BIRGAITZEAN INBERTSIOAK EGITEKO PARTIDA BATZUK ONARTU DITUZTE. PARTIDA HORIEN BAITAN DAGO, BAITA ERE, TRENBIDE-AZPIEGITURETAN HOBEKUNTZAK EGITEA, ZEIN TREN-GELTOKIAK ETA SOINU-ERAGINAK MURRIZTEA HAINBAT HERRITAN.**



Testuinguru horretan, 200.000 euro onartu dira Izarrako hirigune zaharra eta berria lotuko dituen zubi bat eraikitzeko trenbidearen gainean. Proiektu hori, trenbidea eta Izarra ibaia zeharkatuz Izarrako alde zaharra alde berriarekin lotzen dituen egungo zubia aldatzea eta handitzea, aspaldiko asmoa da auzotarrentzat eta Administrazio Batzarrarentzat, eta egin gabe geratu zen bidea handitu zenean, ADIFek bere garaian jarri zituen zailtasunengatik.

### Uholde arriskutsua ekiditu

Gaur egungo bideak ez du bi ibilgailuk zirkulatzeko adinako zabalerarik, ez eta tona kopuru jakin bat duten ibilgailuak igarotzeko egiturarik ere ez. Bide hori, gainera,

begi zabalera nahikorik ez duen ibaiaren gainetik igarotzen da; eta, horren ondorioz, Lola Enea eta Ostuñoako kirolgunearen zati handi baten artean uholde arriskua egon daiteke.

Horren ondorioz, URak ez du inolako obrarik baimentzen eremu horretan. Iaz, URak ukatu egin zuen padel pista bat jartzea tenis pista dagoen tokian; eta, gainera, duela urte batzuk galarazi egin zuen igerilekuen alboetan estalitako ataripe bat eraikitzea.

Partida horri esker, proiektua idatzi ahal izango da, bidea hobetzeko lehen urratsa izango dena, eta Izarrako alde horretako uholde arriskua Ostuñoako kirolguneraino aldatu.

## AGENDA

# GABONETAKO EGITARAUA URTARRILAREN 28RA ARTE

Olentzero eta Mari Domingi, ipuin kontaketa, minidisco-a, tailerrak, filmak, irteerak...

Udalak Gabonetako programa zabala antolatu du, abenduaren 21ean hasi eta 2023ko urtarrilaren 28ra arte iraungo duena.

Gabonen aurreko astean, ipuin kontakariak eta antzerkia ('Zuhaitzak landatzen zituen gizonak') izango ditugu Gorakada konpainiaren eskutik. Abenduaren 24an Olentzerori eta Mari Domingiri ongietorria egingo zaie herri zaharreko elizatik abiatuta.

### Adin guztietarako

Data horretatik aurrera, haur eta helduagoen aisialdirako moduko hainbat ekimen aurrera eramango dira. Adibidez, abenduaren 26tik 30era, goizez, Negutailerrak egingo dira, bai kultura etxean zein KZgunean. Horretarako, ezinbestekoa izango da Lan eta Jolas-en birtatez izena ematea. Aste horretan bertan, abenduaren 27an, oraindik baieztatu gabe dagoen pelikula bat proiektatuko da kultura etxean 17:30ean. Abenduaren 29an, aldiz,

Orienting proben txanda izango da KZgunean. Ezinbestekoa da Lan eta Jolas programaren bidez ere izena ematea.

Eta urtea amaitzeko, minidisko bat antolatu da abenduaren 30erako, eta bakarriketa ikuskizun bat Aroa Berrozperen eskutik. Eta urtea agurtzeko, abenduaren 31n Estuñagara mendi irteera egingo da.

Urtarrilaren 3an, gaztetxoak Bilboko PInera joango dira; urtarrilaren 4an, Itzalen Tailerra (3-11 urte) eta Scape Room-a (10-16 urte) izango dira; eta urtarrilaren 5ean, aldiz, Gasteizko izotz-pistara irtengo dira.

Amaitzeko, urtarrilaren 15ean, 'Delicieux' filma proiektatuko da kultura etxean; eta hilaren 28an, berriz, 'Espejismos' antzezlan, eramango da kultura etxeko agertokira.

# HERRI ESKOLAKO PATIOA ESPAZIO INKLUSIBO BIHURTZEA

Kolunpio eta jolas berriak jarri dituzte, lorategia eta zuhaitzak egokitu, eta rokodromoa eraiki.



Herri Eskolako patioa erabat eraldatzen dabil azken urte honetan, eta hainbat berrikuntza sartu dituzte, espazio inklusibo eta irisgarri bihurtu dutenak.

## Bestelako erabilera batzuk

Eskola esparru askotan bezala, Izarrako



Herri Eskolako futbol eta saskibaloia zelaiek patioeko espazioaren %75 hartzen dute. Horren ondorioz, orokorrean neskak ez dira patioaren erdiko espazioaren eta espazio nagusiaren erabiltzaile izaten, eta gehienetan patioei ez zaizkie beste erabilera batzuk ematen.



## Guztien ekarpenak

Testuinguru horretan, Udalak, Herri Eskolako hainbat eragilerekin batera (irakasleak, langileak, familiak...), partehartze prozesu bat jarri zuen abian aisialdirako gune berri bat diseinatzeko, bai eskolako erabiltzaileentzat, zein Urkabustaizko biztanleentzat ere.

## Partehartze prozesua

Partaidetza prozesuak aipatutako eragileen ekarpenak jaso ditu, baita ikastetxeko irakasle eta ikasleenak ere. Horrela, honako akzioak egitea erabaki zen, eta gehienak da goeneko eginda daude.

## Berrikuntza ugari

Alde batetik, zoruan jolasetarako hiru marrazki margotu dira. Egonaldi eremua ere egokitu da, zuhaixka-landarediaren ordeztalpeko zuhaitzak jarrita, eta jolastokirako piknik mahaiak erosi dira. Dauden kolunpioak ere konpondu dira, eta lorategidun gunea egokitu da. Azkenik, patioeko horma bat arbelez estali da, bertan marraztu ahal izateko; eta rokodromo bat sortu da, metro eta berrogeita hamarretik beherako altuera desberdinetako presekin. Rokodromoa pintatzea falta da.

Jarduera gehienak amaituta daude da goeneko, baina proiektu hau bizia da. Hortaz, erabiltzaileen beharren arabera, hobekuntza berriak egiteko aukera zabalik dago oraindik ere.

## Eusko Jaurlaritzaren laguntza

Egindako hobekuntza guztiek 21.000 euroko aurrekontua izan dute, eta horietatik 18.000 Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren Patio Inklusiboak dirulaguntzaren bidez ordaindu dira.

## LANAK

### FRONTOIAREN ATZEKO APARKALEKUKO OBRAK

Ugarte kaleko aparkalekuko obrak hasi dira, frontoiaren atzean, eta horrek eragozpen batzuk eragingo dizkie herritarrei aparkatzeko tokiei dagokienez; izan ere, bi hilabeteko epean aparkaleku batzuk kenduko dira.

Udalak aitortu du une jakin batzuetan aparkatzeko zailtasunak egongo direla, baina aurreikuspenen arabera, obra epeetan amaituko da; eta behin hori eginda, aparkaleku plazak handituko dira eta halako beharra duten espazioak eraberritu.



## UDAL GUNEAK

### UDALAK IKASTEKO GUNEAK ERRAZTUKO DITU

Udalak gogorarazten du ikasteko gune bat behar duten herritarrek, aurrerantzean sortuko diren enplegu deialdi ugariak prestatzeko zein bestelako ikasketak egiteko arratsaldero udal liburutegiko instalazioak erabili ditzaketela.

Eta goizetan gune bat erabili behar izanez gero, Udalak gune batzuk prestatuko ditu kultura etxean. Goizean gune horiek behar dituzten pertsonak udal bulegoetan eska ditzakete.

Hemengo eta Hango Emakumeak  
**CARMEN ADARRAGA  
ELIZARÁN**  
(HERNANI, 1921 - 2004)



Espainiako selekzioko lehen saskibaloï kapitaina izan zen 1942 an.  
Hiru aldiz izan zen Espainiako txapeldun bere taldearekin,  
Donostiako Emakumezkoen Sailarekin Espainiako eskubaloï eta belar  
hockey selekzioetan ere jokatu zuen.

Fue la capitana de la primera selección española de baloncesto en 1942.  
Tres veces campeona de España con su equipo, la Sección Femenina de  
Donostia-San Sebastián También jugó en las selecciones españolas  
de balonmano y hockey hierba.